

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

**2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak emateko deialdiaren laburpena. BDNS (Identif.): 693598.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/693598>).

**Lehenengoa. — Xedea**

Euskera ikasketak eta ikastaroak egiteagatik diru-laguntzak emateko prozedura arautzea.

**Bigarrena. — Onuradunak**

1. Aurrematrikula egin aurretik, gutxienez urtebete lehenago Mungian erroldatuta daudenak.

2. Udal euskaltegian matrikulatzeko ezarritako epearen barruan izena eman arren, plazarik izan ez eta, Mungiatik kanpoko euskaltegi batera ikasten joan behar izan dutenak; horientzako diru-laguntza ikastaroaren zenbatekoaren %30 izango da.

Laguntza hauek jasotzeko bete beharreko baldintzak:

- Udal euskaltegian ez egotea eskatzaileari dagokion mailako talderik (Ordutegia ez da kontuan izango).
- Udal euskaltegiko irakasleek erabakiko dute zein maila dagokion eskatzaile bakoitzari.
- Mungiako edo bertotik kanpoko beste euskaltegi batean matrikulatzea astean hiru egun edo gehiagoko ikastaroetan (gutxienez astean sei orduan) eta ikasturte osorako.

**Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

Euskera ikasteko diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onepenaren bidez daude araututa. Ordenantza horren testu osoa 2019ko ekainaren 27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Mungiako Udalaren Webgunean deskargatu ahal izango dira.

**Laugarrena. — Zenbatekoa**

Mungiako Udal Euskaltegian ikastarora hasten denetik harik eta amaitu arte, %90eko asistentzia betetzen duten ikasleek, matrikularen prezioan %75eko laguntza jasoko dute, betiere ordenantza arautzailearen 3. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Udal euskaltegian matrikulatzeko epe barruan izena eman arren, plazarik izan ez dutela-eta, Mungiako beste euskaltegi batera ikasten joan behar izan dutenek, udal euskaltegian matrikulatutakoei dagozkien laguntza berdinak izango dituzte. Aurrekontu-partida 44/3355/48001- 8000 euro.

**Bostgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

Ekainaren 1etik 16ra, biak barne.

Mungian, 2023ko apirilaren 26an.—Kultura eta Euskera Arloko Zinegotzi, Elizabeth Bilbao Arruti